

**Euskal Itsasertza Interes Zientifikoko Taldearen (IZT)
ERAKETA HITZARMENA**

ONDOKOEN ARTEAN:

Communauté d'Agglomération Côte Basque Adour, 15 avenue du Maréchal FOCH, 64100 BAYONNE
helbide duena, Presidenteak ordezkaturik,

Communauté d'Agglomération Sud Pays Basque, 5-7 rue Putillenea 64122 URRUGNE helbide duena,
Presidenteak ordezkaturik,

Conseil général des Pyrénées-Atlantiques, 64 avenue Jean Biray, 64000 PAU helbide duena,
Presidenteak ordezkaturik,

Gipuzkoako Foru Aldundia, Gipuzkoa Plaza, z/k 20004 DONOSTIA helbide duena, Ahalzun Nagusiak
ordezkaturik,

Université de Pau et des Pays de l'Adour, Avenue de l'Université BP 576 64012 PAU cedex helbide
duena, Lehendakariak ordezkaturik,

BRGM (Bureau de Recherches Géologiques et Minières), Tour Mirabeau, 39-43 Quai André Citroën,
75739 PARIS Cedex 15 helbide duena, , Presidenteak ordezkaturik,

AZTI TECNALIA, Herrera Kaia Portualdea Z/G, 20110 PASAIA helbide duena, Zuzendariak ordezkaturik,

Lyonnaise des Eaux France, Centre Technique du Littoral Rivages Pro Tech, Tour CB21, 16 place de l'Iris,
92040 PARIS LA DEFENSE helbide duena, Rivages PRO TECheko Zuzendariak ordezkaturik,

eta

CASAGEC INGENIERIE, 4 Route de Pitoys, Les Pyramides, Zone de Maignon, 64600 ANGLET helbide
duena, Zuzendariak ordezkaturik,

Aurrerantzean bakarka edota kolektiboki alderdia(k) deituko direnak.

HITZAURREA

Bizkaiko Golkoa badia ireki bat da, Irlandatik Portugaleraino doan osotasunaren barnean. Horren erdialdean kokaturik, Pirinio Atlantikoak-Gipuzkoa mugaz gaindiko itsasertzak kostaldeko 120 km hartzen ditu.

Lurralde honek interfaze funtzioa betetzen du Frantziako Hego-mendebalde handiko eskualdeen eta Espainiako iparraldeko eskualdeen artean. Horren kokapen geografikoak ekarri du bere dinamismo demografikoa, baita garapen ekonomikoa eta turistikoa ere. Pirinio Atlantikoak-Gipuzkoa mugaz gaindiko itsasertza arro hidrografikoen ekarpen askoren bilgunea da (hamaika ibai itsasoratzen dira hirurogeiren bat hondartzatan). Jarduera antropikoek, orobat, eragin handia dute bertan.

Euskal Kostaldeko itsasertza lurralde estrategikoa da eta pizten duen erakargarritasun gero eta handiagoari erantzun beharrean dago, bizingurua begiratzearekin batera, hori baita bere marka irudiaren bermea eta garapenerako baliabide garrantzitsua.

Kostaldeko zerrenda honen kudeaketa garrantzi handieneko gaia da, kontuan harturik guztiz urbanizatua dagoela eta horrek dakartzan inplikazio ekonomikoak eta turistikoak.

Itsasaldeko 30 km baino gehiagorekin, dagozkion tokiko erkidegoek, lankidetzaren esparru batean jarduera programak ezarri beharko dituzte arian-arian kostaldeko lerroa hobeto kudeatzea helburu (higatze eta urperatze arriskuak, hondartzetako hondarraren galera, portuetako sedimentazioa eta dragatzea...), inguruneen buruzko ezagupenez hornitzeko (Natura 2000, Observatoire de l'Estuaire de l'Adour...) eta proaktiboak izateko bainu uren kalitatearen

alorrean (saneamenduaren jarraipena eta alor horretako arauetara egokitzea, Schéma d'Aménagement et de Gestion des Eaux SAGE), arro mailako kontratuak...).

Gaur egun, kostaldeko dinamismoaren eredu digitalek eta behaketa teknika berriek (sateliteak, denbora errealean neurtzeko estazioak...) laguntza berria ekar diezaiekete erkidegoei, itsasertzaren kudeaketarako iragarpen eta zaintza baliabideak haien esku jarritz.

Ikerketa proiektu eta programen artean, Euskal Kostaldeko zientzialariek eta erkidegoek berezko eran elkar lanera jo dute iragarpen baliabide horietan, eta gaur egun puntako aditu-lanei etekina ateratzea bideratzen du. Aldi berean, nazioarteko ospea lortu duen maila garaiko aditu-lana sendotu da tokiko ikerketa laborategietan, publikoetan zein pribatuetan.

Era orokorragoan, esandako alor horietan helburu komun batzuk nabarmentzen dira:

- **Itsasertzaren kudeaketaren alorrean jarduera plublikoari dagokion aldea berresteko aukera sortzea.**
- **Denbora errealeko kudeaketa hobetzea eta emandako informazioa bermatzea.**
- **Iragarpen baliabideen erabilera optimizatzea (ereduak horien artean).**
- **Inguruari buruzko ezagutza ekartzea.**
- **Egin beharreko inbertsioak lehenestea.**
- **Etengabeko diagnostikoa eskura izatea Euskal Kostalde osoaren mailan.**

Gaur egun iragarpen ereduak bainu urak kudeatzeko laguntza ekartzen badute ere, hobekuntzak gauzatu beharrekoak dira hainbat mailatan: ereduak gauzatzea hobetzea, datuak eskuratzeko erraztasuna, emaitzen fidagarritasuna sarrera datuen arabera, kalkulu denborak murriztea...

Tresna horiek, era berean, operazional izan behar dute araudi eskakizun berriei eta etorkizuneko plangintza estrategiei erantzuteko higadura, urperatze edo dragatzeei dagokienez.

Haratago joz, tresna horiek hainbat alderdi hobeki ezagutzea bideratuko dute: saneamendu obra eta sareen funtzionamendua, arro hidrografikoen hidraulika, bainu uren kalitatean edo kostalde lerroan eragina duten fenomenoak, baita etorkizunean egin beharreko inbertsioak ere.

Higadura fenomenoak (luiziak labarretan, hondarra galtzea) eta sedimentu metaketen dinamika hobeki ulertu ahal izango dira eta, hortaz, hobeki iragarri ere.

Iragarpen ereduaren emaitzek benetako diagnostiko iraunkorra ezartzea ahalbidetuko dute euskal itsasertzaren mailan, baita erkidegoek egin beharreko inbertsioetan lehentasunak ezartzea ere.

Egun, kontua da lankidetzaren horiek iraunaraztea eta baliabide horiek hobetzea, **euskal itsasertzaren mailako Interes Zientifikoko Talde (IZT)** baten esparruan erkidegoen itzaropenei erantzutearren.

Halako proiektuen jarraipenak eskualde arteko izaera du; izan ere, horiek hainbat eskala geografikotik txertatzen diren eredu osagarriak gauzatzen lan egiten duten zientzialarien parte hartzea inplikatzeko dute, eta era berean aditu-lanak trukatzeko aukera ematen dute. Beharrezkotzat jotzen da behaketen datuak eta emaitzak leku bakarrean biltzea. Web plataforma bat garatu beharra dago iragarpen informazio horiek gehienak denbora errealean IZTko kideen esku jartzeko.

Esperientzien elkarrekikotasun horrek onura ekarriko dio era horretara eratu den taldeari, eta haratago joanez, interesaturiko komunitate zientifikoari ere, hau da, nazio barneko zein nazioarteko hainbat programatan ereduak gauzatzen lan egiten ari direnei. Lehentasunez heldu beharreko bi gai daude:

- * **Bainu uren kalitatea.**
- * **Kostaldeko lerroaren bilakaera.**

Era berean, beste gai batzuk hainbat kideren elkarlanaren helburu izango dira. Horietarik dira, bereziki, **itsas biodibertsitatea babestea, itsas energiaren erabilera edo makro hondakinak hautematea.**

Era berean, horien artekoak dira **itsasperatze** fenomenoak, eta horiek ere ikerlan eta truke zientifikoaren helburu izango dira. Hala, Pirinio Atlantikoetan, itsasertzeko arriskuei dagokienez, Frantziako estatuak bi Prebentzio Plan ezarri ditu: Donibane Lohizune/Ziburu/Urruña eta Hendaia.

Uholdea zuzentarauak, orobat, Uholde arriskuko lurralde bat seinaltatu dute euskal kostaldean, tokiko estrategia baten helburu izan beharko duena.

Ondorioz,

Euskal Itsasertza Interes Zientifikoko Taldea (IZT) sortzeko erabakia hartu da, eta horrek bai erkidegoak (Agglomération Côte Basque Adour, Agglomération Sud Pays basque, Kontseilu Orokorra 64) eta Gipuzkoako Foru Aldundia, bai organismo zientifiko pribatuak zein publikoak izango ditu kide, elkarlanak jarraitzea helburu.

ONDOKOA XEDATU DA:

1. artikulua.- Hitzarmenaren helburua

Hitzarmenaren baldintzen arabera, Euskal Itsasertza Interes Zientifikoko Taldea eratu da alderdien artean, nortasunik gabeko Interes Zientifikoko Talde bat, aurrerantzean «Euskal Itsasertza IZT» .

Hitzarmena ez da inola ere nortasun juridikodun erakunde bat eratzekeo egintzat hartuko. IZTren aginpidea ez da bere kideena baino handiagoa.

Hitzarmenak ez du alderdien artean irabazi edo galerak banatzeko biderik emango, Euskal Itsasertza IZTk zehaztu eta babesturiko proiektu zientifikoen esparruan burutuko diren lan eta egitekoei dagokienez.

Hitzarmenak alderdien arteko harremanak antolatzea du xede, bere garapena eta gero zehazten diren helburuak lortzeko ahaleginak bultzatzearen (2. Artikulua).

Abian jarri eta urtebetera egingo da Euskal Itsasertza IZTren ebaluazioa, Hitzarmenean zehazturiko eran.

2. artikulua.- Euskal Itsasertza IZT eratzea

Interes Zientifikoko Talde bat (IZT) eratu da euskal itsasertzaren mailan.

Euskal itsasertzeko Udalen arteko Lankidetzarako Organismo Publikoak (EPCI) elkartzen ditu, hau da, Côte basque Adour eta Sud Pays Basque Aglomerazioak, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorra eta Gipuzkoako Foru Aldundia, itsasertzaren kudeaketari buruzko ikerketaren onuradun zuzenak direnak, eta euskal itsasertzarekin loturiko ikerketak eta garapena gauzatzen dituzten organismo zientifiko publikoak zein pribatuak.

Zuzenbide publiko edo pribatuko pertsona moralen arteko lankidetzak era malgua (nortasun juridikorik gabea) da Euskal Itsasertza IZTren berezitasuna, mugaz gaindiko esparrua barne hartzen duena. Horien gaitasunak koordinatzea bilatzen du ikerketaren garapenaren mesedetan.

3. artikulua.- Laneko gaiak

Hitzarmenean azalduko testuinguruaren arabera, alderdiek lehentasunez ondoko gaiak lantzea hitzartzen dute:

- 1- Bainu uren kalitatea.
- 2- Kostalde lerroaren bilakaera (higadura eta akrezioa/sedimentazioa).

Epe luzeagora begira, Euskal Itsasertza IZTk, orobat, beste hainbat arrisku izango ditu aztergai, hala nola itsasperatzea, itsas biodibertsitatearen babesa, itsas energien erabilera, makro hondakinak hautematea, baita, era orokorragoan, itsasertz eremuko uraren eta inguruaren kalitatea ere.

1/ Bainu uren kalitatea

Bainu uren kalitatea helburu ekologiko eta ekonomiko garrantzitsua da ukituriko erkidegoentzat.

Hondartzetako bainu uren kalitateak baldintzatu egiten du turismoaren eta ur kirolen inguruko ekonomia osoaren iraupena. Izan ere, urtero euskal itsasertzak 400.000 turista inguru hartzen ditu udaldian: 380 enpresa inguruk, 3.000 lanpostu, mila milioi eurotik gorako negozio zifra eragiten du urtean, begiratzea komeni diren ur kiroletako lanbideen inguruan.

Azken hamabost urteotan, erkidegoek saneamendu lanetan inbestitu dituzten 250 milioi euroek bainu uren parte handi baten kalitate ona - egungo araudiaren arabera- bermatu eta hondartza ixteak mugatzea ahalbidetu dute.

2015eko sasotik aurrera, «Bainua» europar zuzentarau berria abian jartzeak eragin nabarmena izan dezake gure itsasertzeko bainu guneen sailkapenean, hondartzak jendeari irekitzeko orduan eta, ondorioz, lurralde osoaren gaineko eragin ekonomikoetan.

Kostaldeko dinamikaren eredu digitalek laguntza berria ekarri diete erkidegoei, bainu uren kalitate bakteriologikoaren iragarpen eta zaintza tresnak haien esku jarritz.

Badu urte batzuk Agglomération Côte Basque Adour-eko Erkidegoa, Agglomération Sud Pays Basque-ko Erkidegoa, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorra eta Gipuzkoako Foru Aldundia lanean ari direla erakunde zientifiko frantses eta espainiarrekin, publiko zein pribatuekin (Rivages Pro Tech/Lyonnaise des Eaux, AZTI-Tecnalia, CETE SO, IFREMER, Université de Pau et des Pays de l'Adour, CASAGEC...) iragarpen ereduak (haizeak, uhinak, hondoko itsasoa, kutsadura bakteriologikoaren dispersioa) garatzeko sinaturiko ikerketa kontratuen esparruan. Eredu horiek gaur egun operazionalak dira eta jadanik erabili dituzte itsasertzeko erkidego kudeatzaileek (Donibane Lohizune, Ziburu, Miarritze eta Bidarte) hondartzen irekitze eta ixteak optimizatzearen. Kontseilu Orokorrak bereziki sustatu eta 2011 urtearen hondarrean amaituriko LOREA mugaz gaindiko proiektuaren bidez garatu dira horiek. LOREAk aurrerapen nabarmenak ekarri ditu bainu gunetako kutsaduren errudun diren fenomenoak hobeki ezagutzeko eta itsasertzaren behaketarako denbora errealeko sistemak jartzeko.

Bainu gunetako uren kalitatea iragartzeko tresna horiek hobetu eta mantendu behar dira, hondartzen kudeaketa aktiborako planteamenduaren jarraitasuna segurtatuko badugu. Hori dela eta, saneamendu sistemek isuritako kutsadura bakteriologikoa (ekaitzak eragindako gainezkatzeak, euri uren sareak, araztegiak) etengabe jarraitu ahal izateko tresnak garatzeak iragarpenak doitzea bideratuko dute, hasierako balio errealistak sartuko baitira.

Datuei dagokienez:

- * Neurtzeko baliabideak iraunaraztea.
- * Datuak segurtatzea ikuspegi tekniko eta zientifikotik.
- * Lorturiko datuen izaera publikoa mantentzea.
- * Dauden datuak adostea eta, hala badagokio, horiek osatzea aurreikustea.

Iragarpen ereduari dagokienez:

- * Gauzaturiko ereduak ikerketa kontratuen ondorio dira; horietako batzuk bukatu dira edo bukatzeko puntuan daude. Premiazkoa da horien jarraipena baldintzatuko duten prozedurak zehaztea.
- * Ereduen iragarpen era hobetzea eta balidazio zehatzetarako bide ematea.
- * Tokiko ereduaren formalizazioa eta garapena.

Ezagutza zientifikoari dagokienez:

- * Ezagutza zientifikoa hobetzeko helburua finkatzea.
- * Ezagutza zientifikoa eskuragarria eta partekatua izan dadin ahalegintzea, erkidegoek elkarrekin gaitasuna areagotu dezaten.
- * Erkidegoek informazio egokitua eskura izatea bideratzea, erabakitzerakoan laguntza izan dezaten.

2/ Kostaldeko lerroaren bilakaera:

Kostaldeko lerroaren bilakaera dugu beste lan eremu bat: arazo nagusia higadura da, hala kostalde harkaiztsuena nola hondartsuena. Ikerketa zientifiko aplikatu baten tokiko garapen premia dago alor honetan.

Hainbat babes lan ez gauzatuz gero, kostalde hondartsuak urtean 1-3 m egingo luke atzera, eta kostalde harkaiztsuak 20 cm urtean, batez beste. Euskal itsasertzaren higadura arazo fisikoa baino gehiago da, eta gaur egun erkidegoak urbanizazio, lurralde antolamendu eta pertsonen segurtasunari dagozkien kontuei erantzun beharrean daude.

2009tik, Frantzia mailako gogoetaren aitzindari, Akitaniako Itsasertza Interes Publikoko Taldeak (Groupement d'Intérêt Public, GIP, «littoral aquitain») lan garrantzitsu bati ekin dio hartu beharreko estrategiei buruz, sendotze lan masiboetatik atzera egiteko estrategietarainokoak.

Talde horretako kide gisa, Pirinio Atlantikoak Departamendua, Côte Basque Adour eta Sud Pays Basque Aglomerazioak azterlan horren alderdi interesatuak dira. Aglomerazio bakoitzak eskualdeko estrategia horren tokiko aldaera bat abiarazi du.

Eskualdeko estrategiaren beharrei erreparaturik, Observatoire de la Côte Aquitaine behategiak, frantses estatuak, eskualdeak eta Akitaniako itsasaldeko departamenduek lagundurik, Bureau de Recherches Géologiques et Minières (BRGM) delakoaren esku jarri du «itsasertzaren higadura» eta «luizi» arriskuen kartografia 2020 eta 2040 urteei begira.

Higadura arriskua ongi aski ezagutzen bada ere, oraindik hobe daiteke horri buruzko ezagutza; era berean, oraindik zaila da gertaera horien ondorioak aurreikustea. Kostalde harkaiztsuko alde askotan oraindik luizi eta lur-jausiak jasaten dituzte, biztanleen segurtasuna arriskuan jartzen dutela.

Kostaldeko zerrendaren kudeaketa higaduraren aurrean:

- * Erkidegoentzat, beraz, kontua da gune sentiberenetan jarraipen zehatz bat izatea, higadura azeleratu dezaketen parametro guztiei erreparatzeko, bereziki ondokoak: plubiometria eta jariatzea alderdi kontinentalean, uhinak eta itsaslasterrak labarren oinetan.
- * Bestalde, euskal itsasertzeko hondartza hareatsu batzuk, hala nola Angelu, Donibane Lohizune edo Hendaia-koak sedimentazio defizitak jota daude, zeinak kostaldeko lerroaren atzera egite ikusgarria ekarri duen eta, aldi berean, erkidegoak hondartzetan erregulartasunez akrezio lanak -hondar ekarpen masiboak- egitera behartu dituen.
- * Kontua da zaintza eta aditu-lana sustatzea, dela kostaldeko lerroaren jarraipenari dagokionez dela eskumeneko jarraipen teknologiei dagokienez. Adibidez, eredu «morfosedimentario»en fase operazionala garatzeak sedimentazio mugimenduak aurreikusteko bide emango luke eta, era horretara, laguntza osagarri bat izango genuke itsasertza babesteko erabakiak hartzerakoan (egokitze lanak, hondartza profilak prestatzea, betelanak...).

Sedimentazio eta dragatze prozesuen kudeaketa hobetzea:

Euskal Kostaldeko portuetako dragatze jarduerak hainbat estuario aldeetan gauzatzen ari dira: Bidasoa (Hendaia), Urdazuri (Donibane Lohizune), Aturri (Baiona, Oiartzun (Pasaia), Oria (Orio), Urola (Zumaia), etab.

Ikerlan batzuk egin dira euskal kostaldeko portu jarduerekin zerikusia duten **sedimentazio prozesuei** buruzko ezagupenak hobetearren.

Sedimentu horien dinamikaren behaketa eta ereduak gauzatzea ezinbesteko tresna dira metal astunak eta bestelako kutsatzaile ugari izan litzaketen substantzien jarraipena egiteko.

Bidasoa eta Aturri ibaietarako dauden tresnak iraunarazi eta bermatu beharko dira.

4. artikulua.- Euskal Itsasertza IZTren helburuak

Euskal Itsasertza IZTren helburu nagusiak ondokoak dira:

- Partaide zientifikoekin eta tokiko erkidegoekin abiatutako mugaz gaindiko dinamika jarraitzea.
- Lankidetzak zientifikorako baldintzak eta «egiten jakitea» transmititzeko baldintzak partaideen artean garatzea eta koordinatzea, baita baliabideak eta gastuak elkarrekin jartzekoak ere.
- Erabiltzaileen (erkidegoak bereziki) premiekin zerikusia duten euskal itsasertzari buruzko ikerketa eta aplikazio berriak garatzeko gogoeta kolektibo bat antolatzea eta jardueren arteko koherentzia begiratzea.
- Iragarpen tresnen fidagarritasuna eta eraginkortasuna hobetzea, datuak lortzeko baliabideak iraunaraztea eta garatzea.
- Finantza eta teknika baliabideen bilaketan parte hartzea dauden tresnak mantendu ahal izateko, neurketa kanpainak jarraitzeko eta ikerketa programa berriak abiarazteko.
- Erabiltzaileen (erkidegoak) premien eta komunitate zientifikoaren proposamenen arteko egokitzapena ahalbidetzea.
- Ezagutza eta laguntza ekartzea erabakiak hartzerakoan.
- Itsasertza kudeatzeari begira puntako aditu-lan zientifikoa partekatzea.
- Eragile zientifikoek egindako lanen ikusgaitasuna areagotzen laguntzea (argitalpenak, mintegiak...), emaitza horiek zientzialari homologoekin partekatzea eta berek ebaluaraztea.
- Euskal Itsasertza IZTren lanen berri ematea zientzialarien ingurunean eta jendearen artean eta tokiko ikerketa bultzatzea.
- Euskal Kostaldearen izaera berritzailea bultzatzea itsasertza kudeatzeko tresnei dagokienez eta alor honetako aurrerapen teknologikoak iraunaraztea.

Aurrekoa burutzeari begira, **datu plataforma** batean itsas eta kostalde inguruneak zaintza eta iragarpen tresnak abiarazi eta batera jartzea izango da Euskal Itsasertza IZTren **lehentasuna** izango duten **ekintzetako bat**, datu horiek epe luzean eta formatu erabilgarrietan eskuratu, mantendu eta eguneratzea antolatzen ahaleginak eginez.

Plataforma horrek dauden zaintza eta iragarpen tresnak sendotzea ahalbidetuko du (hainbat proiektuen emaitza direnak, hala nola LOREA, BIDUR, Observatoire de l'Estuaire de l'Adour, Easyco, Contrats de recherche ville de Biarritz, Bidart eta Communauté d'Agglomération Sud Pays Basque...), hori guztia goian (3. artikulua) aipaturiko alorretan. Plataforma honek informazio sistemen fidagarritasuna (datuen kudeaketa, bankarizazioa eta trukea) hobetzea bilatuko du, partaideen artean emaitzen trukea eskualde arteko mailan antolatuz (esaterako, dauden beste plataformekin datuen trukea bultzatuz, bereziki Akitanian eta Euskadin, baina baita europar mailan, Arku Atlantikoan ere).

Euskal Itsasertza IZTren eta bestelako kontratuen jarduera dela-eta bilduko diren datu zientifiko guztien segurtasun kopiak era zentralizatuan eta irakurtzeko moduko formatuan egiteko baldintzak ezartzea izango da plataformaren eginkizuna.

Datuak dagozkien eragile zientifikoaren edo bestelakoaren artean partekatzeko baldintzak zehaztekoak dira.

Alderdiek, kide direnez, jarduera horren lehentasunezko izaera berresten dute eta adierazten dute ahalegin guztiak egingo dituztela hori gauzatu dadin Euskal Kostaldea IZTren lankidetzak esparruan.

5. artikulua.- Euskal Itsasertza IZT Taldeko Batzordea eta haren funtzionamendua

Euskal Itsasertza IZT Taldeko Batzorde bat eratzen da.

– **5.1. artikulua.- Taldeko Batzordearen Osaketa**

Alderdi guztietako ordezkariak osatzen dute Taldeko Batzordea -bat edo batzuk alderdi bakoitzeko-.

Pertsona adituak (hiru gehienez) parte har lezakete Batzordean.

Taldeko Batzordean egongo diren alderdi bakoitzeko ordezkarien kopurua era honetara zehazturik daude:

Erkidegoak:

-Agglomération Côte Basque Adour : 4 ordezkari.

-Agglomération Sud Pays Basque : 4 ordezkari.

-Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorra: 4 ordezkari.

-Gipuzkoako Foru Aldundia: 2 ordezkari.

Erakunde zientifikoak

-UPPA: 2 ordezkari.

-BRGM : 2 ordezkari.

-AZTI-Tecnalia: 2 ordezkari.

Erakunde teknikoak:

-Rivages Pro Tech/Lyonnaise des Eaux: 2 ordezkari.

-CASAGEC: 2 ordezkari.

Alderdi bakoitzeko instantzia arduradunek izendatuko dituzte ordezkari horiek, lege, arau eta estatutu formak gordez, hiru urteko iraunaldirako, berritu daitekeena.

Ospe ezagutuko pertsona adituak gonbida litezke, erkidegoen elkargoak hala eskaturik, Taldeko Batzordeko bileretan parte har dezaten. Pertsona adituen kopurua ezin da hirutik gorakoa izan eta kontsulta funtzioa dute soilik.

Alderdi bakoitzak Taldeko Batzordean ordezkari izateko izendaturiko kideen nortasuna eta datuak jakinaraziko ditu. IZTko kideetako instantzia arduradunek edozein ordezkari aldaketari buruzko informazio osoa eman beharko diete gainerako partaideei.

– **5.2. artikulua.- Taldeko Batzordearen Funzionamendua**

Taldeko Batzordeak Presidente hautatuko du urtebeteko iraunaldirako Hitzarmena sinatu duten erkidegoetako ordezkarien artean. Presidentzia urtero berrituko da printzipio berari jarraiki.

Taldeko Batzordea urtean bi aldiz bilduko da, gutxienez, Presidenteak hartara deiturik, eta berak ezarriko du gai zerrenda Euskal Itsasertza IZTko idazkaritza teknikoaren laguntzarekin, eta jakinaraziko die Taldeko Batzordekideen ordezkariak bilera aurreko bidezko epe baten barrenean, zortzi lanegun ingurukoa.

Taldeko Batzordea bildu ahal izango da batzordekideetako batek eskatuko duenean.

Taldeko Batzordekide bakoitzaren ordezkariak boto bana izango dute.

Taldeko Batzordearen erabakiak bertaraturik edo ordezkaturik dauden kideen gehiengo soilaz hartuko dira, estatutu hauek bestelakorik xedatzen ez badute.

Quoruma ez izanez gero, Presidentziak beste bilera batera deituko du hilabetearen barrenean.

Behin behineko eragozpena izanez gero, Taldeko Batzordekide bakoitzak izendaturiko ordezkari bakoitzak baimena du bileretan dagokion erakundeko pertsona batek ordezkatua izateko, aldez aurretik Presidentziako gainerako kideei jakinarazteko baldintzapean. Era berean, Taldeko beste Batzordekide baten ordezkari batek ordezkari dezake, nahiz Taldeko ezein Batzordekide ezin duen ahalorde bat baino gehiago izan.

Taldeko Batzordearen erabakiak kide guztiei jakinaraziko zaizkie ondoren, Taldeko Batzordearen bilera amaitu eta bi asteko epearen barnean.

Batzordekideetako batek kargua utzi edo behin betiko eragozpena gertatuz gero, dagokion partaideak horren berri emango die gainerakoei eta hura ordezkatzeari ekingo dio.

Hitzarmena aldatzeko proposamenek, haren luzapena edo suntsiarazpena barne, alderdietako ordezkarien (bertaratuak edo ordezkatuak) botoen bi herenak bildu behar dituzte.

Taldeko Batzordeak idazkaritza tekniko baten laguntza izango du, Batzordeak hautatua kideen artean eta, premia izango duen guztietan, dei egingo die pertsona ospetsu kualifikatuen eta zientzialari adituen aholkuei.

Kontratu bereziak egin daitezke alderdien artean, baldin eta guztien artean partekatze zientifikoaren eta baliabideak eta datuak batera jartzearen helburuak errespetatzen badira; horrek inplikaturiko du emaitza zientifikoak sinatzaileen artean, eta are Euskal Itsasertza IZTko gainerako partaideekin, trukatzea aurreikusiko duten klausulak eta eranskinak izatea, kontratu horien helburua Euskal Itsasertza IZTren helburuekin bat etorritik gero.

– 5.3. artikulua.- Taldeko Batzordearen funtzioak

Taldeko Batzordeak hartuko ditu Euskal Itsasertza IZTren orientazio eta funtzionamendurako behar diren erabakiak, IZTk bere helburuak lortzeko bideak jarraitzea. Zerrenda osoa ez izanik ere, bereziki ondoko kontuek arduratuko da:

- Euskal Itsasertza IZTren bide orriko jardueren buruzko erabakiak hartzen du, urtean behin gutxienez. Bide orri horretan aplikatu beharreko giza, finantza eta zientzia baliabideak aurreikusiko dira gaingiroki.
- Euskal Itsasertza IZTren esparruan abiatutako proiektu zientifikoaren programari buruzko erabakiak hartzen ditu eta horiek aplikatzeko eskatu beharreko dirulaguntzen eskaera antolatzen du.
- Gogoan hartuko ditu partaideek ekarri eta Euskal Itsasertzak IZTren proiektu batera edo bestera xedaturiko giza eta finantza baliabideak zein baliabide zientifikoak edo teknikoak.
- Plataformaren antolatze arduratzen da, baita datu zientifikoak partekatzeaz eta horiek artxibatu eta alderdien artean batera jartzeaz ere.
- Idazkaritza teknikoak prestaturiko urteko jardueren zientifikoari buruzko txostenak onartzen ditu.
- Alderdien artean eta Euskal Itsasertza IZTren helburuak lortzeko bidean gauzaturiko jardueren zientifikoekin egindako kontratu guztiak onartzen ditu.
- Euskal Itsasertza IZTren komunikazioa kudeatzen du eta hartarako bitartekoak zehazten ditu.
- Hitzarmenari egin beharreko balizko aldagaitzak erabakitzen ditu, haren suntsipena barne, eta horiek klausula gehigarrietan jasoko dira.
- Alderdi berrien parte hartzeaz erabakitzen du.
- Euskal Itsasertza IZTren jardueren balantzea ebaluatzeko erak aurreikusten ditu.
- Mugaz gaindiko eta diziplinarteko truke zientifikoaren erregulartasuna segurtatzen du, zehazturiko baliabideak eta kostuak batera jartzerakoan eta aurrerapen zientifikoak itsasertzaren kudeaketan inplikaturiko partaide publikoekin partekatzerakoan.

6. artikulua.- Kide egitea - Banantzea

6.1. Kide egitea

Hitzarmenean alderdi berri bat sartzea Taldeko Batzordearen erabakiaren mende izango da, zeina hartarako bilduko den.

Beste alderdi bat Hitzarmenean sartzeak alderdien ordezkarien (bertaratuak edo ordezkatuak) botoen bi herenak bildu beharko ditu.

Beste alderdi bat sartzeak alderdi bakoitzaren ordezkari kopurua berrikustea ekar lezake, nahiz erkidegoenak gehiengoa izaten jarraituko duen.

Beste alderdi bat sartzeak, beraz, Hitzarmenaren klausula gehigarri bat ekarriko du.

Sinatzeko unetik aurrera, alderdi berria Hitzarmenaren xedapenen mende egongo da, edo orduan indarrean egongo denaren mende, oraingo hitzarmenean aurreikusiriko baldintzen arabera aldatua izanez gero.

6.2. Banantzea

Edozein alderdi noiznahi banan daiteke, betiere aldez aurretik Taldeko Bakoitzari horren berri emanik eta hiru hilabeteko aurreabisu aldia gordez.

Bananduko diren alderdiek, hitzarturikoaren arabera, aldez aurretik Euskal Itsasertza IZTrekin sinaturiko konpromisoak betetzeko eginbeharra izango dute, izan zitezkeen berariazko hitzarmen sinatuak edo onarturiko eginkizunak aplikatuz, zeinak helburu zehatzei dagozkien eta Euskal Itsasertza IZTn berez abiatuak zeuden.

Bananduko diren alderdiek Euskal Itsasertza IZTren esparruan hitzarturiko eskubideen onura gal dezakete, horiek gordetzea Euskal Itsasertza IZTren barrenean jarraitzea nahitaezko baldintza den guztietan, dela alderdien artean berariaz egindako kontratuetan aurreikusiriko klausulen arabera, dela Hitzarmenaren xedapenak aplikatuz.

Hala, dimisioa emandako alderdi guztiek utzi beharko diote Euskal Itsasertza IZTn kide aktibo gisa parte hartzea aipatzeari; jendaurrean jakinarazi beharko dute Euskal Itsasertza IZT proiektutik banandu direla, baita banantze data adierazi ere, hitz argiak eta objektiboak erabiliz.

Gainera, dimisioa emandako alderdi guztiek, Euskal Itsasertza IZTrekin edo haren alderdiekin berariaz egindako akordioa izan ezik, Euskal Itsasertza IZTren esparruan -bereziki plataformaren bidez- trukaturiko datuen zuzenbide osoko hartzaile izateari utziko diote automatikoki.

7. artikulua.- Iraupena

Hitzarmen hau azken alderdiak sinatu ondoren jarriko da indarrean. Hitzarmenaren iraupena hiru urtekoa da indarrean jarriko denetik aurrera.

Hitzarmenaren iraupena lehenengo funtzionamendu urtearen amaieran berraztertuko da jarduera balantzea oinarri harturik eta geroago behar adina aldiz berrikusi ahal izango da.

Hitzarmena klausula gehigarri baten bidez luza daiteke; era berean, amaitu baino lehen suntsiturik gerta daiteke Taldeko Batzordekideek, bertaratuak edo ordezkatuak, aho batez harturiko erabakien ondorioz.

Nolanahi ere, suntsiarazpena ez da gauzatu ahal izango harik eta Euskal Itsasertza IZTren esparruan harturiko betebeharrak bete arte.

8. artikulua.- Euskal Itsasertza IZTren bitartekoak

Hitzarmenak ez dakar finantza konpromisorik alderdien aldetik.

Euskal Itsasertza IZTri esleitu beharreko finantza eta giza baliabideen kontuak berariazko kontratu baten esparruan tratatzekoak izango dira, eta kontratu hori lan programa batean oinarriturik ezarriko da.

Alderdiek, Euskal Itsasertza IZTren helburuak lortzeko eta jarduerak jarraitzeko beharrezkoak izango diren giza eta finantza baliabideak eta baliabide zientifikoak eta materialak ekartzea hitzartuko dute, beren eskumenen eta dagozkien bitartekoen barrenean, horiek edonolakoak izanik ere, bakoitzaren erakunde arduradunek harturiko erabakien arabera, horiek gainerako alderdien aurka jar daitezkeela, edukia edonolakoak izanik ere.

Urtero, alderdi bakoitzak Euskal Itsasertza IZTren helburuak lortzeko esleituriko baliabideak aurkeztu beharko dizkio Taldeko Batzordeari, baita Euskal Itsasertza IZTrekiko konpromisoari begira kontuan harturiko denbora tarteak.

Alderdi bakoitzak bermatzen du Euskal Itsasertza IZTren jarduerari eskaintzea erabaki duen baliabideen kudeaketa, dagozkion kontabilitate eta estatutu arauen arabera.

Euskal Itsasertza IZTri berariazko baliabideak esleitzea erabaki duten alderdi guztiak Euskal Itsasertza IZTrekin sinaturiko konpromisoak beren osotasunean betetzera beharturik daude, ezinbesteko kasuetan izan ezik edo Batzordekideek gehiengo soilez hutsa onartzea erabakita, aldez aurretik kideak berariazko eskaera arrazoitua aurkezturik.

Ezein alderdik, kide egite soilagatik, ez du Euskal Itsasertza IZTren jarduerari eta aurrekontuari nahitaezko ekarpena egiteko konpromiso orokorrik hartzen, zeren eta alderdien arteko ekarpen askatasuna Euskal Itsasertza IZTren printzipio bat baita.

Dena den, alderdi bakoitzak aldez aurretik, bestelako proiektuen edo ikerketa kontratuen esparruan, bere gain har zitzakeen eginbeharrak bete behar ditu.

Euskal Itsasertza IZTren helburuak eta programak gauzatzeari begira, alderdiek, giza eta finantza baliabideetatik aparte, ekipamendu higigarriak eta higiezinak jar ditzakete Euskal Itsasertza IZTren esku, berek zehaztuko duten eran. Dagozkien alderdiek ekipamendu horien jabe izaten jarraituko dute, eta beren gain hartuko dituzte erantzukizuna eta kostuak, berariaz harturiko bestelako erabaki bat gorabehera, zeina Hitzarmenari erantsi beharko litzaiokeen.

Gainera, Euskal Itsasertza IZT funtzionatzeko behar diren baliabideak hainbat erakunderen ekarpenetatik etor daitezke: tokikoak, nazionalak, Europakoak edo nazioartekoak, alderdiak, lurralde erkidegoak, baina partaide pribatuek ere ekarpenak egin ditzakete.

9. artikulua.- Jabetza intelektual

Alderdi bakoitzak aurreko ezagupen guztien jabe izaten jarraituko du, jabetza intelektualeko eskubide batek babestuak izan edo ez (patentea, marrazkia, eredua, marka, egile eskubidea), open source lizentziak eta aplikatzekoa den egile eskubidea gorabehera.

Lege xedapenak errespetatzea gorabehera, open sourceko lizentzien alorrean bereziki, baita nazioarteko mailako egile eskubidearenean ere, alderdi bakoitza Haitzarmenaren iraunaldian berez lor ditzakeen emaitzen jabetzat hartuko da, jabetza intelektual edo industrialeko eskubide batek babestua izan edo ez izan.

Hala eta guztiz, aitortzen da Euskal Itsasertza IZTn eta alderdietako bat edo batzuk inplikatzeko dituen kontratu bat egiteak, ikerketa lan komun bat abian jarritz, ekar ditzakeen emaitzak eta datuak alderdien arteko izaera komunekoak gerta daitezkeela, alderdiek, izan ere, eraketatik beretik, datu zientifikoak beren artean hobeki partekatzea bilatzen baitute, beren eskumenetako bakoitza hobetearren eta Euskal Itsasertza IZTren helburu komunak bultzatzearen.

Berariazko hitzarmen bat egingo da kontratu horietako bakoitzeko, eta lorturiko datu eta emaitzak alderdien artean nola partekatuko diren zehaztuko da.

10. artikulua.- Isilpekotasuna

Alderdi bakoitzak Euskal Itsasertza IZTren helburuari begira beharrezkoak diren informazioak jakinaraziko dizkie gainerakoei, hori egiteko aske den neurrian, kontuan harturik hirugarrenekin har zitzakeen konpromisoak.

Ezein alderdik ez die hirugarrenei informazioak helaraziko edo jakinaraziko, informazio horien iturri den alderdiak isilpekotzat jo dituenen eta, horrela bada, isilpekotzat jotako informazio horiek ondoko era hauetara erabiltzeko konpromisoa hartzen du:

1. barne eran baino ez jakinaraztea eta hori ezagutu beharra duten enplegatuei soilik, horiek Hitzarmenaren helburua gauzatu ahal izan dezaten,
2. ez jakinaraztea, eta ezin jakinaraztekoak izatea, dela zuzen, dela zehar bidez, ez hirugarrenei eta ez aurreko paragrafoan aipatu ez den ezeini, jabea den alderdiaren idatzizko onespenei gabe,
3. ez kopia, ez erreproduzituak, ez bikoiztuak izatea, osorik edo partez, halako kopia, erreproduzio edo bikoiztuen iturri den alderdiak baimendu ez badu, eta baimenduz gero, era zehatzez eta idatziz egin beharko du.

Alderdietako bakoitzak gerta litezkeen isilpekotasun betebeharrak errespetatu eta bere enplegatu, azpikontratatzailerik eta batzordeei errespetarazteko konpromisoa hartzen du.

11. artikulua.- Argitalpenak

Euskal Itsasertza IZTren esparruan buruturiko argitalpen zientifiko edo lan komunikazioei dagozkien proiektu guztiei begira, alde aurreko informazioa helaraziko zaio Taldeko Batzordeko Presidenteari, eta horrek Taldeko Batzordekideei helaraziko die.

Euskal Itsasertza IZTren esparruan buruturiko lan eta azterlanen argitalpenetan egileetako bakoitzaren parte hartzea eta Euskal Itsasertza IZTrekin dituzten loturak aipatu beharko dira, baita Euskal Itsasertza IZTk emandako babesak ere.

Euskal Itsasertza IZTren esparruan alderdi batzuek egindako lanak argitaratzeko proiektuek dagozkien alderdi eta egileetako bakoitzaren aurretiazko eta idatzizko adostasuna beharko dute.

Azkenik, Euskal Itsasertza IZTk, orobat, bertan alderdiek egindako lanen zabalkundea du helburu.

Horretarako, Taldeko Batzordeko Presidentzia, Taldeko Batzordearen laguntzarekin, ahaleginduko da Euskal Itsasertza IZTren eta alderdien lanetarako komunikazio baldintza onenak ezartzen.

12. artikulua.- Aldatzea – Suntsiarazpena – Kide bat baztertzea

Hitzarmen honen aldaketa guztiek, ezarritako baldintzak betez erabakirik, klausula gehigarri bat prestatzea ekarriko dute.

Erabaki judizial batek hitzarmenaren klausuletako bat deuseztatuko duenean, gainerako xedapenek indarrean jarraituko dute deuseztatze hori gorabehera.

Hitzarmena suntsi daiteke iraunaldia amaitu aurretik, Taldeko Batzordekideek aho batez harturiko erabakiaren bidez, zehazturiko eta adosturiko baldintzetan.

Alderdi bat baztertzea proposa daiteke Taldeko Batzordeko Presidentziari eskaera arrazoitua bidaliz posta ziurtatu hartu-agiridun bidez; halako eskaerak Taldeko Batzordeko Presidentziari eta ordezkari guztiei, botoa eman beharko dutenei, informazio nahikoa bideratuko dieten elementu guztiak bildu beharko ditu.

Halako eskaera bat ezin burura daiteke, ezpada Hitzarmenaren eginbeharrak edo litezkeen eranskinenak bete ez diren kasuetan, Euskal Itsasertza IZTren esparruan harturiko konpromisoak betetzen ez direnean, edo falta larria edo ageriko desleiatasuna gertatu denean.

Adosturiko baldintzetan hartarako bilduriko Taldeko Batzordeak erabakiko du baztertzea. Taldeko Batzordekideek, bertaratuek edo ordezkatuak, aho batez baino ezin dute baztertzea erabaki.

Alderdi bat baztertzeak Hitzarmena berehala suntsiaraztea dakar alderdi horrentzat. Suntsiarazpen hori klausula gehigarri batean jasoko da. Ikuspuntu juridikotik, ez dakar kontratu bidez, bereziki Euskal Itsasertza IZTrekin edo kideekin bere gain har zitzakeen betebeharrak desagertzea, ezta berariazko akordio batez bere gain hartu eta baztertze egunean existitzen jarraituko luketenak ere.

13. artikulua.- Erantzukizuna – Aseguruak

13.1. Erantzukizuna

Alderdi bakoitzak, dagokionez, bere gain hartzen ditu bere ekintzek edota ondasunek edo langileek Hitzarmen honen esparruan hirugarrenei eragindako era guztietako kalteak, hala nola gorputzeko kalteak, materialak edo immaterialak, baita justizia erreklamazio eta akzio guztiak ere.

Alderdi bakoitzak, dagokionez, bere gain hartzen ditu Hitzarmen hau betetzean bere buruari, enplegatuko dituen langileei edota bereak diren ondasun materialei sortu edo eragindako era guztietako kalteak edo galerak, salbu eta horiek beste alderdien edota haien langileen hutsegite edo zabarkerien ondorio direnean.

Alderdi bat, beste alderdi bati buruz, ez da zuzeneko edo zeharkako kalteen erantzulezat hartuko, bereziki hitzarmen hau betetzearen ondorioz ez lorturiko irabaziak, erabilera galtzeak edo jarduera eteteak eragindakoei dagokienez, falta larri edo doloaren kasuan izan ezik.

13.2. Aseguruak

Alderdi bakoitzak, Hitzarmena betetzearen esparruan, ondasunetan edo pertsonetan gerta litezkeen kalteak bermatzeko beharrezkoak izango diren aseguruak mantentzeko edo, behar izanez gero, kontratatzeko konpromisoa hartzen du.

Estatua bere buruaren aseguratzailerak dela dioen araua aplikatzen zaie erakunde publikoei. Ondorioz, horiek beren aurrekontuen bidez bermatzen dituzte beren jardura dela-eta hirugarrenei eragiten ahal dizkieten kalteak.

14. artikulua.- Aplikatzekoa den zuzenbidea eta gatazken ebazpena

Hitzarmenaren baliozkotasunaz, gauzatzeaz, edo interpretazioaz gerta litezkeen zailtasun guztiei dagokienez, alderdiek erabaki dute gatazka Euskal Itsasertzeko Taldeko (IZT) Batzordearen esku uztea, adiskidetasunezko akordio bat bilatzearren.

Gatazka iraunkorra, jakinarazi ondoko hilabete baino gehiagoko denbora bitartea, izango denean, defendatzailearen egoitzako auzitegi eskudunetan gauzatuko da.

Bederatzi aletan egina Pauen, 2013ko.....aren.....(e)an.

19 MAI 2014

AGGLOMÉRATION CÔTE BASQUE ADOUR
Presidentea



DÉPARTEMENT DES PYRÉNÉES-ATLANTIQUES
Presidentea

**Le Président
Du Conseil général**

Georges LABAZÉE

UNIVERSITÉ DE PAU ET DES PAYS DE L'ADOUR
Presidentea



**Le Président de L'Université
Mohamed AMARA**

AZTI TECNALIA
Zuzendaria



CASAGEC INGENIERIE
Zuzendaria

CASAGEC INGENIERIE
SAS au Capital de 25 000 €
4, route de Pitoys, Les Pyramides
Zone de Maignon - 64600 ANCIET
Tel : 05 59 45 11 03 - <http://www.casagec.fr>
Siret 532 993 771 00015 - APE 7112 B

AGGLOMÉRATION SUD PAYS BASQUE
Presidentea




J. Michel HIRIAAT

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

...

Infante



BUREAU DE RECHERCHE GÉOLOGIQUE ET MINIÈRE
Zuzendaria



Vincent LAFLECHE
Président

LYONNAISE DES EAUX, RIVAGES PRO TECH
Zuzendaria



www.rivagesprotech.fr